

Auzolana, Arizmendiarieta eta kooperatibak: euskal espiritu solidaristaren lotura-guneak

Eba Gaminde Egia

Zuzenbidean doktorea, irakaslea eta ikertzailea, Deustuko Unibertsitatean

Jasotze data: 2024ko urriaren 29an

Onartze data: 2024ko azaroaren 6n

Laburpena

Beste gauza askoren artean, auzolana gure arbasoek utzitako ondasuna da. Egin-eginean ere, inguruko herri askok bizirik iraun dute lan egiteko modu horri esker. Landa-giroari lotuta sortu zen arren, auzolana aurki zabaldu zen hiri esparrura eta azkenaldian oso esanguratsua da “elkarlan” eta “erkidego” aren nozioek hartu duten ikusgarritasuna, egungo premietara egokitutako formula berriak bilatuz. Baina jarraian azalduko dugunez, elkartasunean eta taldearen interesean oinarritutako lana benetan gauzatzen eta garatzen jakin duen formuletakoa bat eredu kooperatiboa izan da, ezbairik gabe, Euskal Herrian garrantzi eta esanahi berezia erdietsu duena, Arizmendiarieta aitzindariaren eskutik. Guztiarekin, auzolanetik etorri eta kooperatibetan garatu diren taldekako zein lankidetzazko estrategia horiek egungo indibidualizazio- eta prekarizazio-prozesuei aurre egiteko lan- eta bizitza-alternatibak bilakatu daitezke.

Gako-hitzak: auzolana, elkarlana, lankidetzazko, kooperatibak, Arizmendiarieta

Summary

Among many other things, neighborhood work is an asset left by our ancestors. A lot of communities have survived thanks to this way of working. Although it emerged in rural areas, soon spread to the cities and today the visibility of notions such as “collaboration” or “community” is very significant, with new variants adapted to current reality. But as we will explain below, one of the best ways to implement and develop work based on solidarity and collective interest has been the cooperative model, which has got a special importance and meaning in the

Basque Country, thanks to its pioneer, Arizmendiarieta. In fact, these collective and collaborative strategies which come from the neighborhood work and have been developed by cooperatives can become life and work alternatives to deal with the processes of individualization and precariousness, so common today.

Keywords: neighborhood work, collaborative work, cooperation, cooperatives, Arizmendiarieta

1. SARRERA: AUZOLANAREN GARRANTZIA ETA BILAKAERA

Auzolana elkarlanean aritzeko modu oso zaharra da, egun “lan kolaboratibo” deritzonaren lehen hazia. Sistema horretan, auzokideak biltzen dira auzoan nahiz herrian hobekuntzak egiteko, komunitatearen mesedetan, inolako ordainsaririk jaso gabe, adiskidetasun-loturak eta tokiarekiko kidetasun-sentimenduak indartuz.

Funtsean, auzolana landa-munduan sortu zen, arbasoen eskuetatik, auzo-bideak ireki eta mantentzeko, elizak zein bestelako eraikin publikoak eraiki eta artatzeko, beharrian-egoeran zegoen auzotarrari laguntza eskaintzeko..., baina laster zabaldu zen hiri-esparrura, eta gaur egun hainbat herri eta udalerritan ikus daitezke lan egiteko modu horren adibideak. Izan ere, auzolanaren erreferenteak aspaldikoak diren arren, sistema hori garai berrietara egokitzeko gai izan da, betiko filosofiari edo euskarriari helduta: pertsona bakoitzak duen borondatea, bere komunitate edo udalerraren alde lan egin eta laguntzeko, beste batzuekin batera. Aldi berean, auzolan tradizionalaz gain, gaur egun lankidetzaren eredu berriak aurkitzen ditugu, lan komunitarioaren ideia berreskuratzen dutenak, besteak beste, *crowdfunding*-a eta *crowdsourcing*-a, pertsonak internet bidez biltzen dituenak, jarduera bat elkarrekin garatzen laguntzeko, batzuetan dirua emanez, baina baita ezagutzak ere.

Egin-eginean ere, eredu ekonomiko jasangarrien gorakadak, azken urteotako lan-prekarizazioak, ekintzailtza eta gizarte-berrikuntzak ekarri dute solidaritatean eta komunitatearen garrantzian oinarritutako sistema horiek gero eta oihartzun handiagoa izatea, “*elkarlaneko ekonomia*” edo *sharing economy* delakoak garapen ikusgarria erdietsita. SANTAMARIA-LÓPEZ eta CARBAJO-PADILLAK aipatu bezala¹, modu erabakigarrian eta eskusiboan izan ez arren, enpleguaren

1 SANTAMARÍA-LÓPEZ E. eta CARBAJO-PADILLA, D. (2023). «Aspectos diferenciales del

prekarizazio horixe da, hain zuzen ere, lankidetzan oinarritutako egungo ekimen sozioekonomikoak aktibatzeke arrazoi nagusietako bat. Aldi baterako kontratazioak dakartzan diru-sarreraren aldizkakotasuna, enpleguaren jarraikortasunari buruzko ziurgabetasuna, indibidualizazioa... Horren guztiaren ondorioz, lan egiteko modu berriak bilatzen dira, auzolanak eskainitako elkarlanaren zein lankidetzaren nozioak berreskuratuz. Eta lankidetzaren erdigunean jartzen duen esparru global horretan kooperatibak agertzen dira.

Historikoki, kooperatibek lana komunalizatzeko faktore gisa aurkeztu dute euren burua, helburu nagusia izanik pertsonen beharrezan eta ongizatea aseztea, onura ekonomikoaren gaitetik, egitura horizontal, demokratiko, ekitatibo, egonkor eta jasangarrien bidez. Eta kooperatibismoaz ari bagara, gure hurbileko testuingurua aipatu behar. Bada, gaur egun, euskal kooperatibismoaz hitz egitea, zalantzarik gabe, On Jose Maria Arizmendiarriz eta Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaz hitz egitea da, nazioartean gehien aztertu den eredu bat, emaitza sozial eta enpresarial arrakastatsuegatik.

2. ARIZMENDIARRIETA, ELKARLANAREN BIDE GILEA. BERE PENTSAMENDUA LANAREN INGURUAN

Azaldu denez, esan daiteke espiritu komunitario eta solidarista beti egon dela presente euskal gizartean, auzolana bezalako ohiturazko erakundeen bitartez, baina sentimendu solidarista hori noiz bihurtu da espiritu kooperatibista?

GORROÑOREN hitzak hizpidera ekarrita, «El espíritu de cooperación no resulta históricamente ajeno al carácter vasco, según lo demuestran el arraigo y expansión geográfica de costumbres como el “*hauzo-lan*” o la “*lorra*”, ligadas a la realización de labores agrícolas periódicas y suficientemente estudiadas por los antropólogos ECHEGARAY² y CARO BAROJA. Como materialización de ese espíritu surgieron las

trabajo colaborativo en nuevas experiencias de cooperativismo en la economía social y solidaria», *Revista Iberoamericana de Estudios de Desarrollo/Iberoamerican Journal of Development Studies* 12 lib., 2, 36.

2 BONIFACIO DE ECHEGARAY, euskal antropologo eta idazleak argi eta garbi azaltzen ditu ohiturazko erakunde horiek: «*Auzolan*: La etimología de esta palabra es clara y expresiva; procede de *auzo*, vecindad o barrio, y *lan*, trabajo. Obliga la prestación

Cofradías, administradoras de bosques y pastos comunitarios, expresión legalizada de compromisos vecinales en la comunidad rural. Estas instituciones cooperativas, cuya función económica en nuestros días es prácticamente nula, llegaron no obstante a poseer un peso específico considerable en la economía tradicional del país»³.

Beraz, euskal kooperatibismoa iraganeko garaietatik dator, eta gaur egun Euskal Herrian ezagutzen dugun formula kooperatiboaren antzekoenak ere ehun urteko historia du. Hala, Euskadin kooperatibismoa XIX. mendearen amaieran agertu zen, Bilboko “Altos Hornos” bezalako industria handien babesean sortutako lehen kontsumo-kooperatiben bitartez. Ondoren, kooperatibismoaren ideiak sektore ekonomiko guztiei aplikatzeko hainbat modu sortuko ziren, eta nekazaritza- eta kreditu-kooperatibak agertu ziren, geroago etxebizitzakoak, lan elkartukoak..., betiere bazkideen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin. Kooperatiba horien jatorri ideologikoa anitza zen, baina hiru eragin nagusi aipatu ohi dira: sozialismoa, nazionalismoa eta Elizaren Doktrina Soziala. Zenbait kooperatiba, alabaina, orientabide ideologiko horietatik at sortu ziren, Rochdaleren idearioari jarraituz⁴, neutraltasun politikoa gorde nahian.

Jatorri- eta orientazio-aniztasun horren guztiaren adierazgarri da, halaber, hainbeste elkarte egotea. Horrek erakusten du, zalantzarik gabe, euskal kooperatibismoaren ezaugarri izan diren dinamismoa eta autoantolaketarako gaitasuna, baina, saiakera batzuk egon arren, garai horretan kooperatibismoak ez zuen lortu integrazio edo batasun handiagoa izatea.

a todos los vecinos. Los casos más frecuentes en que se impone son aquellos que se refieren al trazado, limpieza y arreglo de caminos. *Lorra*: palabra vasca que significa acarreo, transporte; lo mismo que *lorreta* [...]. Por extensión, *lorra* denota, además, aportamiento (entre otros, *zimauro-lorra* o aportamiento de estiércol; *zur-lorra*: aportamiento de madera; *bildotx-lorra*: aportamiento de ovejas)». ECHEGARAY CORTA, B. de (1932). «La vecindad: relaciones que engendra en el País Vasco», *RIEV, Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XXIII lib., 391 eta 386 orr. hurrenez hurren).

3 GORROÑO, I. (1975). *Experiencia cooperativa en el País Vasco*. Durango: Leopoldo Zugaza, argitaratzailea, 43.

4 1844an, Rochdalen, Manchesterretik gertu dagoen herri txiki batean, 28 langilek *Rochdale Equitable Pioneers Society* izenekoak sortu zuten, munduko mugimendu kooperatiboaren lehen eredu. Rochdaleko Aitzindariak bezala ezagutzen ziren eta ospea hartu zuten kooperatiba modernoek mundu osoan bereganatutako lankidetzaren printzipio multzo bat garatzeagatik.

Gerra Zibila eta Erregimen Frankistarekin hautsi egin zen prozesu eta dinamika kooperatibista, basamortuan zeharbide luze bat hasiz, Jose Maria Arizmendiarietaren eskutik “Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa” delakoa agertu arte. Bere kristau bokazioak, pertsonen aldeko mugarik gabeko entregak, Gerra Zibilak banatu eta pobretutako gizarte baten aldeko zerbitzu-jarrerak, herri hari gogoa ekarri zion berriz ere. Baina nola izan zen posible frankismo garaian apaiz errepublikar ohi eta euskaldun batek esperimendu sozial harrigarri eta berritzailea bultzatzea, garapen komunitarioan eta kooperatibismoan oinarritua, sozialki deprimitua eta politikoki garaitua zegoen herri txiki batean, herri hori azkenean epizentro industrial berri bat bilakatuz? Galdera horri erantzuten saiatuz, MOLINAREN hitz batzuk datozkigu burura, haren profil biografikoa marraztean, “paradoxen paradoxa” gisa aipatu zuelako apaizgai gaztea⁵.

Horrela, enigma hori ulertu ahal izateko, paradoxa handi hori argitzeko eta elkarlaren garrantziari hobeto heltzeko, apaiz honen figura apur bat sakonago aztertuko dugu jarraian, lanari buruz duen pentsamendua, bereziki, baita pentsamendu horrek erakarritako emaitza.

5 FERNANDO MOLINA APARICIOK, Historian doktore, Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Garaikideko Saileko irakasle eta ikertzaileak, José María Arizmendiarietaren biografia idazteko erronka handiari aurre egin behar izan zion, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren bi kolaboratzaile eta sortzailearen eskariz: Alfonso Gorroñogotia jauna eta José María Ormaetxea jauna. MOLINAK erronka handia onartu zuen eta, Arizmendiarietaren artxibo pertsonalera, liburutegira eta berarekin bizi izan ziren pertsonen testigantzetara jo ondoren, biografia bikaina argitaratu zuen 2005ean. Hitzaurrean, Jose Mariaren irudi konplexua deskribatzen du esaldi berezi horrekin, “paradoxen paradoxa”, honela jarraituz: «La misma paradoja que entraña la vida de un hombre que busca la emancipación social del individuo mediante su concepción como ser comunitario. Paradoja del hombre que combate con pasión la misma cultura burguesa a la que pertenecen algunos de sus más queridos amigos; que lucha contra el consumo montando empresas que sirven a éste; que busca promover el movimiento social cristiano en mitad del mayor proceso de secularización de la historia del País Vasco; que pretende modernizar la identidad vasca en el tiempo en que más ha sido perseguida políticamente; que concede a la nación vasca su primer instrumento efectivo de autogestión y lo funda no en criterios políticos e independentistas, sino económicos e interdependientes», MOLINA, F. (2005). *José María Arizmendiarieta (1915-1976). Biografía*. Mondragón: Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, 30. or.

2.1. Testuingurua

Arizmendiarietaren figura aztertzean, ezinbestekoa da haren bizitzan eragina izan zuten jatorriari eta inguruneari buruz hitz egitea. Haurtzarora Iturbe base-rrian igaro zuen, euskal nekazaritzaren giro sakrifkatuan. Familia-bizitza osoa etxeari estu-estu lotuta zegoen, Jose Luis aitaren gidaritzapean. Aitak, familiaren ongizatea lortzeko oinarrizko zereginak beteta, Tomasa emaztearen esku uzten zuen familia-ekonomiaren kudeaketa eta seme-alaben heziketa. Jose Mariaren kasuan, heziketa hori bi alditan banatu zen: eskola garaia, Seminarioan sartu aurrekoa, euskarazko kultura orokorraren lehen nozioak bertan jaso zituelarik, baita katekesiko erlijio katolikoaren klaseak ere; eta seminarista aldia, lehenik Castillo Elejabeitiako Seminario Txikian, non kultura orokorreko eta latineko ikasgaiak ikasi baitzituen, eta ondoren, Gasteizko Seminarioan, non filosofia eta teologia ikasi baitzituen, gerra zibilak etendako tarte batekin, aparteko maisuen jakituria eta esperientzia jasota.

Apaiak bihurtuta, Jose Mariak bere Markina maitean eman zuen lehen meza 1941eko urtarrilaren 1ean. Handik gutxira, Arrasatera bidali zuten, San Joan Bataiatzailearen parrokiako laguntzaile moduan. Hiri industrial bat banatuta zegoen, gerraren esperientzia traumatikoaren ondorioz, etsaitasuna, gosea, pobrezia eta era guztietako gabeziak biziz. Jose Maria industria-modernitatetik at zegoen landa-ingurunean bizi izan zen bizitza osoan, eta, beraz, seminarioan egindako ikasketei esker nolabaiteko datuak izan arren, berarentzat ezezaguna zen errealtate bati egin behar zion aurre.

Testuinguru horretan, Jose Mariak Arrasateko gizartea berreraikitzeke idealari eskaini zion bere ahalegin guztia, jakinda hiribildu industrial bat berreraiki ahal izateko, ezinbestekoa zela ekintza irmoa lan munduan, bere pentsamendu eta filosofia osoa bertan islatuz. Etenik gabe garatzen joan den pentsamendu hori bikain aztertu izan da kooperatiben esparruan “klasiko”⁶ bihurtu diren obretan,

6 Besteak beste, honako hauek nabarmendu behar dira: JOXE AZURMENDIEN «*El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta*», (Arrasate, 1984), Arizmendiarietaren pentsamendu soziologikoa ordenatu eta sistematizatzen duena; egile beraren «*Pensamientos de Don José María Arizmendiarieta*» (Arrasate, 1994), bere gogoeta esanguratsuenak jasotzen dituena; edo J. IGNACIO TELLECHEAREN «*El otro Don José María*» (Arrasate, 2005), bere bizitza espirituala aztertzen duena. Meritu eta garrantzi handiko lanak dira, duda-izpirik gabe, Arizmendiarietaren pentsamendua eta espiritualtasuna,

baina oraingoan, pentsamendu horren oinarritzko ildoak azaldu nahi ditugu soilik, haren geroko proiektzio praktikoa ulertu ahal izateko.

Ildo horri segiz, funtsezko bi fasetan zatitu dugu pentsamendu hori: lehenik, bere idearioaren oinarriak eraikitzea, formazio-aldian zein haurtzaroan, “pentsamendua eratzen” deitu dugun atalean; bigarrenik, pentsamendu hori praktikan jartzea, apaizgoaren bidez eta lankidetzan oinarrituta gizartea eraldatzeko saiakeraren bidez, “pentsamendua gauzatzen” atalean islatu duguna.

2.2. Pentsamendua eratzen

Semearenganako lehen eragina bere ama Tomasa izan zen, eragin naturala eta instintiboa. Seme-alabei lehen balioak irakatsi zizkien, landa-bizitzaren oinarritzko printzipioak: austeritatea, sakrifizioa, erantzukizuna eta lana; horrela, Jose Mariak eta bere anaiek haurtzaro samurrenetik bereganatu zituzten nekazari-balioak, euren nortasuna baldintzatu zutenak.

Jarraian, lehen irakasleen lana ekarri behar da hizpidera, hasierako zertzeladak inprimatu eta ondorengo prestakuntzaren oinarriak ezarri baitzituzten. Lehen letrak MARIANO CAREAGA jaunak irakatsi zizkien, zeinak euskararen oinarritzko gramatika eta, haren bidez, erlijioaren eta gaztelaniaren oinarritzko nozioak irakasten baitzizkien. Ondoren, irakasle berria, hamabi urte bete arte, PATROCINIO URANGA andrea izan zen, euskaraz ikasgai garrantzitsuenetako bat irakasten ziena eta José Mariaren bilakaeran eragin handiena izango zuena, «Heziketa erlijioso eta morala», hau da, doktrina katolikoa. Adin horretan hasi zen bere erlijio-bokazioa zehazten, eta hamabi urterekin Castillo-Elejabeitiako seminario

1978ra arte sistematizatu gabe eta hainbat idazkitan (artikuluak, hitzaldiak, sermoiak, oharrak, fitxak...) sakanabaturik egon dena islatzen jakiteagatik, Arizmendiarrietak asko idatzi arren, ez baitzuen inoiz libururik argitaratu. Horregatik, funtsezkoa da José MARÍA MENDIZABAL apaizak eta Arizmendiarrietaren lagun handiak egindako lan goresgarria. Izan ere, Euskadiko Kutxaren laguntzarekin, material hori guztia bildu eta sistematizatu zuen, Arizmendiarrietako Obra Osoen bilduma sortuz.

Bildumak 13 liburuki ditu, eta hasiera batean lehenengoa baino ez zen inprimatu, 1978an, eta gainerakoa edizio mugatuan eskaini zen, multikopiatu (s/f). 2008tik, ordea, edizio osoa digitalizatuta dago (<http://www.euskomedia.org>). Horregatik, artikulua honetan Arizmendiarrietaren testu-hitzak aipatzen ditugunean, letra etzanez eskaintzen ditugu, bilduma horretako iturri digitala aipatuz.

txikian sartu zen, lau ikasturte beteta bertan. Bosgarrena amankomuna izan behar zuen elizbarrutiko ikasle guztientzat, Gasteizko Elizbarrutiko Seminarioan, eta bertan ezagutuko zituen bere helduaroko pentsamenduaren eraketan eragin erabakigarria izan zuten pertsonak. Izan ere, seminario horretatik igarotzea mugarri esanguratsua izan zen Jose Mariaren bizitzan, bere nortasunaren garapenarekin bat etorritz, Espainiako elizaren ikastetxerik onenetakoa baitzen, irakasle-talde apartarekin.

Irakasle horien artean JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN jauna nabarmendu behar da. Irakasle moduan bere kezka nagusia pentsaraztea zen, alegia, ekimen intelektualerako gaitasuna garatuz pertsona helduak prestatzea. Barandiaranek naturan eta bere misterioetan sartu zuen Jose Maria. Arizmendiarieta Barandiaranen metodo zientifikoarekin ohitu zen, eta Markinako baserriak zeharkatu zituen, baserritarrekin hitz eginda ipuinak, atsotitzak, esaerak... bildu eta laneko koadernoan idatziz; aldi berean, ikasitakoa aplikatuz, baserritarrei sinestarazi nahi zien kultur ondare handi baten jabe zirela, eta ondare hori mimoz zaindu behar zutela. Horrenbestez, Barandiaran maisuak bere ikasleengan behaketa eta kritika zentzua pizten jakin zuen. LARRAÑAGAREKIN izandako elkarrizketetan, Jose Mariak berak honela baloratu zuen Barandiaranen figura: «No era un profesor habitual que se distanciaba del alumnado, sino que intervenía en el proceso de discusión, en la reflexión en voz alta. Era un humanista de excepcional categoría y profesor de tal capacidad comunicativa que inspiraba una gran confianza. En el fondo, no era un profesor, era un amigo con el que se compartía, se debatía y se aprendía. Enseñaba a todas las horas y en todo momento: en clase, en el paseo, en la *conversación*, en la *comida*. Aún tengo grabada aquella observación suya que jamás se me olvida, “el hombre no madura hasta que pasan los 40 años”»⁷.

Irakaskuntza-mugimendu berritzaile horretako beste izen bat, Arizmendiarietaren hezkuntzan azkar nabarmendu zena, MANUEL LEKUONA jauna izan zen, euskal kultura sustatzeko *Kardaberaz* Akademia eta izen bereko aldizkaria sortu zituen. Arizmendiarieta laguntzaile sutsuenetako bat izan zen, idazkari kargua ere hartuta. Irakasle honi esker eta *Kardaberazen* bitartez, Jose Mariak munduari eta fedeari irekitako euskal nortasunean sakontzea lortu zuen, akademia horretan

7 LARRAÑAGA, J. (1981). *Don José María Arizmendiarieta y la experiencia cooperativa de Mondragón*. Arrasate: Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, 27. or.

euskara landu, hobetu eta birsortzea ez ezik, haren bidez Elizari eta gizarteari hobeto zerbitzatzea bilatzen zelako.

Hariari segiz, JUAN THALAMAS LABANDIBAR soziologo eta idazlea aipatu behar. Jose Maria gaztearen eta bere lankideen gizarte-interesa eta kezka piztu zuen, eta oraindik formula kooperatiboa zuzenean aztertu ez zuten arren, seguru asko une horretan piztu zen kooperatiba-sugarra, eta horrek fruitua emango zuen gero-garrenean. Halaber, Jose Mariak Thalamasen eskolarako entseguak prestatzeko erabili zuen iturrietako bat JUAN BAUTISTA EGUZKITZAREN *Gizarte-Auzia* izan zen, eta horrek ere Arizmendiarrietaren pentsamenduan eragin nabarmena izan zuela azpimarratuko dugu.

Arizmendiarrietak gogo biziz irakurri zuen lan hau, bete-betean murgilduz Elizaren Doktrina Sozialean, bere hizkuntzan irakurri ahal izateak zekarren abantailarekin. Elizak zabal-zabal erakutsi zuen ordurako gizarte gaiekiko kezka, baina euskaraz jorratzen ziren lehen aldia zen. Lan hori irakurrita, Arizmendiarrietak gazteak Elizaren Doktrina Sozialean eta lehen entzikliketan sakondu zuen, Elizak kapitalaren eta lanaren arteko gatazkaren aurrean zuen jarreraren lehen ikuspegi bat eratuz. Horrela, gizarte-gaiekiko interes sakona piztu zitzaion, eta interes horrek markatuko zuen bizitza osoan zehar.

Amaitzeko, Arizmendiarrietaren pentsamenduaren eraketan funtsezko beste figura bat RUFINO ALDABALDE-TREKU izan zen. Bere zuzendaritza espiritualaren pean, Jose Mariak ikasi zuen zer esan nahi zuen apaiz izatearen abenturak, Aldabaldek modu integralean ulertzen zuelako apaizgoa, bizitzaren adierazpen guztiak uztartuz. Erabateko ematea eta zerbitzatzea zen, ardatza hurkoa izanik, eta ez norbera.

Azkenean, gaztea prest zegoen eta 1941eko abenduaren 21ean apaiztu zuten. Sor-tu berria zuen gizarte-kezkaren ildotik, eta zuzendari espiritualen esanei jarraituz, Jose Mariak Lovainara joan nahi zuen gizarte-ikasketak egitera, baina Gotzainak beste asmo batzuk zituen berarentzat, Arrasatera bidalita.

2.3. Pentsamendua gauzatzen

Prestakuntza-etapa amaitu ondoren, ekintzara pasatzeko unea heldu zen, lehenik eta behin apaiz-ministerioaren bitartez. MENDIZABALEK oso modu grafikoan azaldu zuen apaiz gaztearen egiteko modua: «*el pensamiento y la acción se entre-*

lazan en Don José María en una interacción dinámica de “pensamiento-acción-pensamiento”, en el que el pensamiento provoca acciones y la acción corrige y condiciona el pensamiento»⁸.

Apaiz gazteak Gotzainaren aginduak onartu zituen eta Arrasateko errealitate gogorrari aurre egin zion. Prestakuntza-garaian ikasitakoa aplikatu behar zen. Baina laster ulertu zuen berak ikasitako Elizaren Doktrina Soziala ezin zela zuzenean zabaldu gizarte malkartsu hartan eta ezinbestekoa zela alde aurretik prestakuntza-lana egitea, Elizarekiko konfiantza itzultzeko bertako biztanleei. Horregatik, ordenazioaren ondorengo lehenengo urteetan, batez ere apaiz sentitzen zen. Bere sermoinen, erretiroen eta ariketen bidez kontzientziak piztu nahi zituen, altruismoa gailendu, inguruneko errealitateari begirada eragin, espiritu katolikoko eta elkartasuneko ekimenak sor zitezten.

Lehen etapa horretan, prestakuntza espiritualari eman zion garrantzia, eta ez gizarte-gaiei. Halakoei buruz idatzitako lehen idatziak, ordea, ez dira agertzen 1945-1950 arte. Idatziok hasieran familiaz dihardute, baina laster zentratzen dira lanean, heziketarekin eta elkartasunarekin batera, bere diskurtsoaren giltzarri bihurtuko direnak.

Baina, zer da “lana” Arizmendiarietarentzat? Berak erantzuten dio galdera horri: «La respuesta es difícil. Un factor productivo, una mercancía, una magnitud, un castigo, lo que por excelencia da valor a los bienes al transformarlos, una necesidad [...]. Es lo que caracteriza al hombre exteriormente; los animales no trabajan, sólo viven y se mueven y sienten y ... pero no trabajan [...]. Es la comunicación del hombre con las cosas, con la naturaleza y con los demás hombres [...]. *Qué es, por tanto, lo más grande que un hombre puede dar a los demás, incluido a Dios? Su trabajo [...]. Hoy el trabajo es colectivo, en equipo, hasta para las profesiones liberales, siempre se necesita de los demás, y cada vez más [...]*»⁹.

Lanaren ideia hori bere idazkietan garatzean, bi lotura agertzen dira behin eta berriz, azkenean formula kooperatiboaren gotorleku bihurtu direnak: heziketa eta batasuna. “Heziketa-lana” lehen binomioari dagokionez, LEIBAR eta ORMAE-TXEAK adierazi dute «*si ha habido una preocupación obsesionante en la mente de Don José María ésta ha sido la enseñanza, la socialización del saber*». Heziketa hori

8 http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/arizmendiarieta/lib_01.pdf

9 http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/arizmendiarieta/lib_10.pdf

etengabekoa eta aldaketa teknologikoei egokitua izan behar zen Arizmendiarrietaren ustetan.

Bigarren binomioa “lana-batasuna” zen, eta horrek Arizmendiarrietaren pentsamenduaren, eta, beraz, kooperatibismoaren beste zutabe bilakatu den printzipiora garamatza: elkartasuna edo solidaritatea. «*La unión es la fuerza de los débiles. La solidaridad es la poderosa palanca que multiplica nuestras fuerzas*», aipatzen zuen idazki batean¹⁰. «*Unidos para construir*» zen beste idazki baten izenburua, eta bertan ondokoa aipatzen zen: «*los pueblos que triunfan son los que mejor se prestan y saben acelerar sus procesos de acción uniéndose para construir, sobre todo los que saben construir con hombres y para hombres*»¹¹.

Laburbilduz, Arizmendiarrietaren enpresa kontzeptuagatik eta kooperatibismoaren esparruan egindako ekarpenengatik ezagutzen bada ere, atal esanguratsu horiek bere pentsamenduaren emaitzak baino ez dira. Egin-eginean ere, apaizak maisutasunez uztartu ditu filosofia eta ekonomia, heziketa eta lana, ahalegin pertsonala eta espiritu kolektiboa, horrela pentsamendu sendo eta koherentea sortuz, enpresa-eredu berezi baten euskarri teorikoa bihurtu dena.

3. EMAITZA: KOOPERATIBISMOA ETA MCC-REN ESPERIENTZIA¹²

Aztertutako guztiarekin, Arizmendiarrietak bazituen bere proiektua praktikan jartzen saiatzeko beharrezko osagaiak: lana, elkartasuna, heziketa... Baina orain zailtasun handia sortzen zen, batez ere teknikoa: nondik hasi?

Hamabost urteko predikamendu eta praktika sozialarekin, Arizmendiarrietak ikusi zuen bideragarria zela enpresa eraberritzea, enpresaburuen laguntzarekin. Lehen fasean, espero zuen bezala, Arizmendiarrietak babes handia aurkitu zuen

10 http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/arizmendiarrietaren/lib_08.pdf

11 http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/arizmendiarrietaren/lib_06.pdf

12 Arrasateko Esperientzia Kooperatiboak izen ezberdinak jaso ditu bere historian zehar. Mondragon Kooperatibismoaren III. Biltzarrean *Mondragón Corporación Cooperativa* (MCC) izenez ezagutzen den antolaketa-sistema sektorial berri bat planteatzen da, 2008an *Corporación Mondragón* (Mondragon Corporation) deituko dena. Orain MONDRAGON zein *Mondragon Corporation* erabiltzen dira, web orrialdean ikus daitekeen bezala (<https://www.mondragon-corporation.com>)

Arrasateko patronalaren aldetik, eta gerraosteko arazo larrienak konpontzen lagundu zioten (tuberkulosiaren aurkako borroka, miserian bizi ziren hauren laguntza medikorako dispentsario bat sortzea, etxebizitza berriak...). Baina lankidetzari hori, eta horrekin batera Arizmendiarietaren itxaropenak, desagertu ziren erreformaren muina ukitu zenean, enpresaburuek ez zutelako partekatzen azken helburua: klaserik gabeko gizartea eta langilego emantzipatua lortzea, lanaren jabe izango zena.

Horrenbestez, berak nahi zituen erreformak ezingo zirela bertako enpresetan sartu ikusita, 1955ean erabaki garrantzitsu bat hartu zuen: profesionalki prestatuta zegoen gazte talde bat lantegitik atera eta ikasitako ideietan oinarritutako enpresa-eredu berri bat sortzera animatu. Horrela sortu zen Talleres Ulgor, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren lehen urratsa, Arizmendiarietaren irakaskuntza moral eta sozialak jaso zituzten bost gazteren eskutik, datuak ikusita¹³, erreferente zalan-tzaezina bihurtu dena, estatuan zein nazioartean.

Historian barrena, hiru etapa bereizi ohi dira esperientzia horretan: lehenengoa (1955-1970) bere hasierari dagokio eta Euskadiko Kutxa banku kooperatiboaren inguruan hazkunde koordinatua izatea du ezaugarri; bigarrena (1970-1990) edo Taldekoa, eskualde-orientazioa duena; eta hirugarrena (1990etik aurrera) MCCri dagokio, korporatiboagoa. Ibilbide luze horretan, kooperatibek egoera ekonomiko oso onak ezagutu dituzte, eta egoera horiek baliatzen jakin izan dute hazteko, beste egoera makalagoekin batera. Halakoetan ere, elkartasun- eta lankidetzahalmen guztia erabili behar izan dute, eusteko eta indartzeko.

Guztiarekin, "Arrasateko Esperientzia Kooperatiboak" erronka eta zailtasun berriei emandako erantzuna beti izan da DNAn (pertsonek, elkartasuna eta lankidetzak) sakontzea¹⁴, Arizmendiarietaren espiritua bizirik mantenduz, kasuan kasuko irtenbideak diseinatzeko. Gakoa, alabaina, ez dago Taldearen oinarritzko prin-

13 <https://www.mondragon-corporation.com/people/nosotros/>: 80 kooperatiba, 45 herri, 70.000 pertsona.

14 Taldearen web orrialdean aipatzen denez, "pertsonek bizitza hobetzeko eta Garapen Iraunkorren Helburuen moduko gizarte erronka berriei erantzuteko lankidetzan aritzen gara. Hurrengo belaunaldiei pertsonentzako eta planetarentzako garapen-eredu hobea utzi nahi diegu".

(<https://www.mondragon-corporation.com/people/eu/bestelakoak-gara/>)

tzipioetan, ezpada printzipio horiek merkatu global bateko enpresa errentagarri eta lehiakorretan aplikatzeko gaitasunean.

Laburbilduz, gure ingurune hurbiletik eta Mondragon Taldearen bitartez, elkarlanean oinarritutako eredu kooperatiboak erakutsi du printzipioak ezartzeko ez ezik, emaitza ezin hobeak eman ditzaketen irtenbide praktikoak inspiratzeko gai dela, begirada aldatzeko aukera lehiakorra bilakatuz, kapitalaren logika gupidagabeak menderatutako mundu batean.

4. ONDORIOAK

Gaur egun, bizitza goitik behera merkantilizatu denean, eta pentsa daitekeenean gehiago interesatzen dela gizarte pasibo bat, zergak ordaintzen dituen eta, askoz jota, kontzentrazio bat edo beste antolatzen duena kasuan kasuko udaletxearen edo erakundearen aurrean, irtenbideetan laguntzeko ardura duen gizartea baino, agian, ikusmira aldatzeko unea da.

Iragana gehiegi mitifikatu gabe, eta egungo gizarteek antzinako gizarteekin zerikusi gutxi dutela onartuta (hiri-biztanleria vs. landa-biztanleria; lurrarekin lotura eskasa eta beste ekoizpen-faktore batzuekin lotura handiagoa duen aberastasuna; globalizazioa; teknologia berriak...), oso eraginkorra izan daiteke auzolana bezalako erakundeak berrinterpretatu eta berrasmatzea, talde- eta adiskidetasun-sentimenduak indartzea, baita solidaritatean eta pertsonaren protagonismoan oinarritutako formulak ere, egungo sistema ekonomikoaren alternatiba gisa.

Eredu horietako bat (ez bakarra) formula kooperatiboa izan daiteke. “Arrasateko Esperientzia Kooperatibo” deitutakoak bide luzea egin du kudeaketa bideragarriari buruz hitz egin ahal izateko eta gaur egun nazioan eta nazioartean erreferente bihurtzeko. Ibilbide horren hasieran eta hil zen arte (ia aktibo egon zen bere azken egunetara arte), Arizmendiarieta jauna lider aparta bihurtu zen, umiltasun pertsonal handia eta ekintzaitza profesional izugarria uztartuz, irakaspen nagusi bi utzita: batetik, ordena morala eta ekonomikoa ez direla atal bereziak, ezpada nahitaez konbergenteak; eta bestetik, posible dela balioetan oinarritutako lidergoa lehiakor bilakatzea.

Horrenbestez, utz ditzagun alde batera egungo indibidualismoa, epe laburreko ikusmira eta sareei lotutako harreman sozial faltsuak, eta berreskura dezagun

auzolanak eta kooperatibismoak partekaturiko espiritua: elkartasuna, talde-lana, eta gure aitona-amonen begietara begiratzea, guztion artean gizarte bidezkoagoa eta benetakoagoa erdiesteko.

5. BIBLIOGRAFIA

- Altuna R. y Urteaga E. (2014). «Los inicios de la Experiencia Cooperativa de Mondragón», *REVESCO, Revista de Estudios Cooperativos*, 115, 101-131.
- Arizmendiarieta, J. M. (1999). *Pensamientos*. Navarra: Otalora. Gráficas Lizarra, S.L.
- Azurmendi, J. (1994). *Pensamientos de Don José María Arizmendiarieta*. Aretxabaleta: Otalora.
- (1984): *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta*. Arrasate: Caja Laboral Popular-Lan Kide Aurrezkia.
- Divar Garteiz-aurrecoa, J. (2013a). *Economía y democracia*. Madril: Dykinson.
- (2013b). «Las cooperativas: Una alternativa económica y social frente a la crisis», *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo*, 47, 257-264.
- (2011). *Las cooperativas: una alternativa económica*. Madril: Dykinson.
- Echegaray Corta, B. de (1932). «La vecindad: relaciones que engendra en el País Vasco», *RIEV, Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XXIII lib., 376-406.
- Gadea E., Atxabal A., Izquierdo M. E. (2014). *Las cooperativas como alternativa económica: una visión de México y España*. Madril: Dykinson.
- Gadea E., Sacristán F., Vargas C. (2009). *Régimen jurídico de la sociedad cooperativa del siglo XXI: realidad actual y propuestas de reforma*. Madril: Dykinson.
- Gorroño, I. (1975). *Experiencia cooperativa en el País Vasco*. Durango: Leopoldo Zugaza, argitaratzailea.
- Larrañaga, J., (2004). *Dilema del cooperativismo en la Era de la Globalización*. Vitoria-Gasteiz: Euskadiko Lan Elkarteen Federazioa.

- (1981). *Don José María Arizmendiarieta y la experiencia cooperativa de Mondragón*. Arrasate: Caja Laboral-Euskadiko Kutxa.
- Leibar, J. eta Ormaetxea, J. M. (1993). *Don José María Arizmendiarieta y sus colaboradores*. Aretxabaleta: Otalora.
- Martínez Etxebarria, G. (2014). «La juventud como valor corporativo en las sociedades mercantiles cooperativas del siglo XXI», *Difusión de los valores y principios cooperativos entre la juventud*. Madril: Dykinson S.L., 59-72.
- Martínez Charterina, A. (2013). «Cooperativismo y economía del bien común», *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo*, 47, 185-197.
- Mendizábal, J.M. (1978). *Escritos de Don José María Arizmendiarieta. Tomo I. Conferencias, Apostolado Social*. Arrasate: Caja Laboral-Euskadiko Kutxa.
http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/arizmendiarieta/lib_01.pdf
http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/arizmendiarieta/lib_06.pdf
http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/arizmendiarieta/lib_08.pdf
http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/arizmendiarieta/lib_10.pdf
- Molina, F. (2005). *José María Arizmendiarieta (1915-1976). Biografía*. Arrasate: Caja Laboral-Euskadiko Kutxa.
- Narvarte Arregui, P.A. (2006). «La Experiencia Cooperativa de Mondragón: estudio de su viabilidad organizacional en el contexto de Euskadi», *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 54, 231-255.
- Ormaetxea, J. M. (1994) «Los principios cooperativos de la Experiencia», *Textos básicos de Otalora. Área de Educación y difusión cooperativa*, 5. lib, Arrasate: Azatza (Otalora).
- Oyarzábal, A. (1989). *D. José María Arizmendiarieta visto por sus discípulos*. Gipuzkoa: IKASBIDE, Grupo Cooperativo Mondragón.
- Rippe, S. (2012). «Contribución de las empresas cooperativas a la construcción de un mundo mejor», *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo*, 46, 17-32.
- Santamaría-López E. eta Carbajo-Padilla, D. (2023). «Aspectos diferenciales del trabajo colaborativo en nuevas experiencias de cooperativismo en la economía social y solidaria», *Revista Iberoamericana de Estudios de Desarrollo/Iberoamerican Journal of Development Studies* 12 lib., 2, 32-55.